

XXXI. URTEA

81. zenb.

2013 IRAILA-ABENDUA

6,20 €



Babelium proiektua: ahozotasuna praktikatzeko kode irekiko plataforma

Zuzenketak nora, idazlanak hara

Online ikastaroetako parte-hartzearen taxonomia bat

Zabaldu ditzagun ateak: nonahiko ikasketa eta HIKT

Ikasbil 2.0, euskara-ikasleen elkargunea

HIZPIDE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA

Xedeak

HIZPIDE euskalduntze-alfabetatzearen aldizkaria bi eremu horietan dihardutenei edo horiekin lanbidezko loturarik dutenei zuzendua dago; helduen euskara-irakasleei, batik bat. Lau hilabetekari honek berezko esparru ditu ama-hizkuntza eta bigarren hizkuntzen irakaskuntzarekin zerikusia duten zientzi arloak (Psikolinguistika, Linguistika aplikatua, Andragogia / Pedagogia, Soziolinguistika), eta helburu nagusi hizkuntzen irakaskuntza/alfabetatze-gaietan teoria, teknika eta ikerketak ezagutaraztea. *HIZPIDE*k teoria aplikatuaren eta praktikaren arteko oreka lortu nahi du, arestian aipaturiko zientziak eta klaseko mundua uztartzeko zubi izan, aplikatua baita argitalpenaren orientabidea. Ez da lan makala informazio aberatsa eta nor bere burua hobeto prestatzeko lan-tresnak eskaintzea eta ideiak elkartrukatzeko eztabaidagune ireki, jori eta bizia izatea. Ba, horixe du *HIZPIDE*k erronka. Azkenik, *HIZPIDE*ren zuzendaritza ez da artikuluetan agertzen diren iritzi eta ideien erantzule.

HIZPIDERako lankidetzak

*HIZPIDE*k gogo onez hartzen ditu helduen euskalduntze-alfabetatzearen esparruari behar bezala erantzuten lagundu dezaketen ekarpenak. Aldizkariaren orientabidea gogoan, bertara bidalitako lanek zerikusi handia izan behar dute euskalduntze-alfabetatze gintzak egunero eta gertutik bizi dituen gorabeherekin. Eta, nahiz eta helduen euskalduntze- eta alfabetatze-eremuei buruzko ekarpenak hobetsi, ez ditu baztertuko helduez beste gizataldeekin aritzen direnenak edota bestelako esparruetakoak, baldin eta egoera ezberdinetan aritzen direnentzat ere baliagarri bezain interesgarri gertatzen badira.

Lanak taxutzerakoan, "Artikulugileentzako irizpi-deak" izeneko idazkia hartu behar da kontuan. Berau urteroko lehendabiziko zenbakian emango da argitara.

*HIZPIDE*k hemendik dei egiten die, aldizkarian esku har dezaten, euskara-arloan lan egiten duten irakasleei, hizkuntza eta hezkuntza-teknikariei, euskara-arduradunei eta unibertsitate-alorreko ikertzaileei.

Posta

Honako helbide honetara igorriko da editorial-gaien inguruko posta eta harpidetzari buruzkoa:

HIZPIDE
Vitoria-Gasteiz, 3 20018 Donostia
Tel.: 943 022 600
Fax: 943 022 601
Prestakuntz@habe.org

Zuzendaritza

HABEren Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzua

Koordinazioa

Programa Bereziak Atala

Koordinatzailea

Iñaki Murua
Programa Bereziak Atala

2013rako prezioa

Ale hau: 6,20 €

Diseinua eta atalburuetako ikonoak:

Figuera Design
Zedro Plaza 2-1. e
20016 - Donostia

Fotokonposizio, inprimatze eta koadernatzea:

Michelena artes gráficas, s.l.
Ubarburu pasealekua, 54. 27 Industrialdea
20115 Astigarraga (Gipuzkoa)

Legezko gordailua

SS-745/96

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio
Orokorra, HABE.

ISSN 1136-5714



Zenbaki honetan

Aurkezpena 1

Bestelako lankidetzak

*Juanan Pereira
eta Inko Perurena*

Babelium proiektua: ahozkoatasuna praktikatzeko kode irekiko
plataforma 2

Nekane Gallastegi

Zuzenketak nora, idazlanak hara 14

Beste iturrietatik

*Regina Bento,
Bany Brownstein,
Edward Kemery
eta Susan Rawson Zacur*

Online ikastaroetako parte-hartzearen taxonomia bat 25

Elisa Hergueta

Zabaldutuz ditzagun ateak: nonahiko ikasketa eta HIKT 37

Geure mundutxo

*Esther Isasa
eta Eskarne Lopetegui*

Ikasbil 2.0, euskara-ikasleen elkargunea 47



Aurkezpena

Eskuartean duzu, irakurle, 2013ko azken lauhilabetekoari dagokion Hizpide aldizkaria. Eman diezaiegun begiratu azkar bat 81. zenbaki honek bildu dituen artikuluei.

“Bestelako lankidetzak” sailarekin hasi dugu oraingoa. Lehenik, ahozkotasuna praktikatzeko asmoaz egindako *Babelium* proiektua aurkeztu digute Juanan Pereirak eta Inko Perurenak. Ekimenaren ezaugarriak ez ezik, indarrean jarritakoan izandako eskarmentua eta etorkizun laburrerako aurreikuspenak ere azaldu dizkigute.

Nekane Gallastegirena da bigarren artikulua; “Zuzenketak nora, idazlanak hara” du izenburu, irudiz eta konparazioez jantzitako gogoeta honek. Idazmenaren esparruan ikasleei eskaintzen zaien laguntzaz eta haiekin izaten den zuzenketa-harremanaz hausnartu du, baita zuzentzeko moduek ikasketa-prozesuan eta hobekuntzarako bidean duten eraginaz ere.

“Bestelako iturrietatik” atalean, eta Hizpideren ibilbidearen hasieratik eginiko bideari jarraiki, kanpoko egileei erreparatu diegu; hala, itzultitako bi artikulua dauzkagu zenbaki honetan.

Baltimoreko Unibertsitateko Bento, Browstein, Kemery eta Zacur-ek proposaturiko online ikastaroetako parte-hartzearen taxonomia bat argitaratu zen 2005ean. Nahiz eta testuingurua enpresa-zuzendaritzaren arloko ikastaroetakoa izan eta harrez geroztik urte batzuk iragan, interesgarri iritzi diogu hona ekartzeari, gure eremuan ere aplikatzeko modukoa izan daitekeelakoan. Izan ere, ikasleen parte-hartzea izaten da buruhauste nagusienetakoa prestakuntza-jardueretan; areago oraindik ingurune birtual edota Sarearen osagaia funtsezkoa denean.

Horrez gain, Sevillan jaio eta egun Austrian bizi den Elisa Herguetaren ekarpen bat dugu. Ipuin batetik abiatu da espainiera-irakasle, irakasleen prestatzaile, ikertzaile eta blogari hau, eta hezkuntzaren esparruko pentsamoldeez eta tresna-teknologikoez aritu da ondoren. Nonahiko ikasketaz jardun du eta IKT akronimo ezagunari (hau da, Informazio eta Komunikazio Teknologia) beste hitz bat gehitu dio: harremanei dagokien H-a, hain zuzen.

Bukatzeko, “Geure mundutxoa”ri errepasoa, Eskarne Lopetegi eta Esther Isasaren eskutik. Egindako birmoldaketan eta bilakaeraren ondoren, gaur egungo Ikasbil webgunearen nondik-norako nagusiak aurkeztu eta errazago nabigatzeko eta bertan dauden aukera zein baliabideei etekin handiagoa ateratzeko bideak erakutsi dizkigute.

Horra hor, bada, zenbakiaren mamia. Ohi bezala, probetxuzkoa izan dakizula opa dizu Hizpidek.